

5. Euskeraren oinatz galduak

Javier Goitia Blanco



Javier Goitia Blanco Bermeon jaio zen 1950. Bere aitak, Juan, euskararen jatorriari buruzko liburu bat idatzi zuen: *España, ¿Ibera o vasca?*, Javierrek lan horretan lagundu zion, garai horretan lana mekanografiatuz.

Zaletasun hori jarraituz baina bide propioa eginez, Javier, ingeniaria eta geografoa dena, Iberiar penintsulako toponimoak ondo aztertu ditu azken 39 urteotan.

Bere ustean, horretan oinarrituta, euskeraren historia zati handi bat idatz daiteke, galdutako hitz asko horietan gorderik daudelako.

Azterketa toponimikoak egiteko, besteak beste, Espainiako Institutu Geografikoak duen datu base erraldoi batean (1.500.000 toponimo) egiten ditu bilaketak eta, programa baten laguntzaz, antzekotasunak dituzten terminoen multzoak automatikoki egiten ditu.

Mendi eta urarekin lotutako guneei (ibaiak, aintzirak, lakuak...) ematen die garrantzi gehien, izen horiek gutxiago aldatu direlako.

Lan horri esker euskararen 1.500 morfema topatu ditu, esanahi propioa duten soinurik txikienak. Horiei esker, dagoeneko galduta dauden adjektibo, adberbio eta izenak topatu ahal izan ditu.


Liburu batean (ADN del Euskera en 1.500 partículas) bizitza osoko ikerketa lan hori irailean argitaratzeko asmoa du. Eta beste bat ere badu prest gabonak orduko argitaratzeko: "Voces castellanas relacionadas con el mar, de posible origen euskérico".

1. Paleolitoa eta izotzaldi haundia

Gaur egun munduko lur lehorren hedadura hainbatzen da 13.701 miloi hektareatan eta biztanleen populazioa 2008ko bukaeran, 6.709 milioikoa zan (gaur, hiru urte beranduago uzte da 7.000tik igaroten dala). Kentzen badira helgaitz tokiak, basamortu, goi mendi, Antartida eta itsas leiak, istingak eta berezko edo/ta gizakiak eragotako leku galarazi asko (adibidez, tse-tse euliarengaitik, gudetako agertokiak eta abar), buru bakoitzeko ez jaku aparatzen hektarea murri bat baino.

Paleolitiko azken milakadetan, LGMren aroan (ingelesez “Azken Izotzik Handiena”), lehorretako lur eta itsas jelak hedatu ziran itsas mailaren igoeragatik. Leku askotan (Euskal Herrian behintzat), kosta hurbilean igarobideak ireki ziran, itsas ondo azaleenak, ganeko ura galdukeran eta LGM horretan, munduko lurren azalera hedatu zan 20 mila miloi hektarea arte; sinesten badogu biztanleen kopurua, bi milioira ez zirala helduko, horrek esan gura dau, pertsona bakoitxari, 10.000tik 20.000 hektarea arte egokitu jakozala.

Neurrietan sartzeko, esan daikegu Urdaibaiko Erreserba izango leitekela bikote baten ezkontsaria.



Jakinduriak ez dau oraindik probatu (baina helduko da eguna), aldi haietan, ez egoala gairik –gaur bezala- toki baten “errotuta” bizitzeko: ondasunak, hau da ura, ehiza, ezitia, frutak, sasoiko zerealak, arrautzak..., barreiatuta egoen; holan da ze mugikortasuna izan beharko zan hobea finkatuta egotea baino.

Indar edo energia balantze merke bat lortzeko, hoberena, elikagaiak eta “kamea”, egun (kontuz, orduko eguna ez zen gaurkoa bezalakoa!) bakoitzean aurkitzen ziran lekuan bete. Gero, hiru–lau tresna eta beste pitxi edo ondasun eramangarriak lepoan hartu eta prest alde egiteko.

Nork hartu lepoan harrapatutako basurdea eta –behar bada- eta toki finko batera (behar bada) bi leguetara eraman?

Gizakia ibiltaria zen. Ingelesez esaten dena “hunter-gathereres” (ehiztari biltzaileak) baina niri gehiago gustatzen jatana, “hunter-cattle raisers” edo ehiztari-abere zaintzaileak da.

Ez da batere gaitza ulertzea, hain eskas biztanleen kopururako, taldeen gidarien urduritasun bat (behar bada larriena) izango zala beste talde batzuekin aurkitzea, berriak, aurrerakuntza teknologikoak (eta bikoteak, zelan ez?) aldatzeko. Horren bidez, hizkuntzek irauten dabe egonkor.

Gure kulturetako edozein kiderentzat, hain urrun bizi garenok Izadiaren aldaketagatik, (goi mailako teknologiari esker) ia ezinezkoa da imajinatzea zein balore edukiko eben gure –orain 40.000 urteko- aba zaharrek.



(irudia: Mundo Neandertal)

Gure gizarte aurreratuari esker, eskubide berdinek dauzkagu epelenak eta trebeenak. Hau da gure harrotasun sakonena. Aldi haietan, alderantziz, umetasun igarota, norberak jagon behar ko eban bere burua.

Antzinako ilunbetan sartzeko eta zorroa ikuskeraz bete ekarteko, beharrezkoa da haien baloreetan heztea, behar beharrezko dira hiru–lau gauza, “jakinduria” ofizialek aparte: Saiatu behar da norberaren burua denbora haietara eroaten; denbora haietako arrisku eta aukeratako ondorioari aurre egiteko eta denbora haietako asmoak eta bildurrak erabiltzeko.

Gauzarik nagusia, hizkuntza, ele, berba, haien aditzeko bidea.

Hau da orain arte inork kontuan eduki ez duena.

2. Euskeraren erroak bilatzeko bideak

Euskera, gero eta jakintsu gehiagok on hartzen dabe, gero eta argudio gehiago dagoz esateko giltz nagusia dala antzinako ezkutokia irekitzeko.

Ni, adibidez, azkenengo berrogei urteotan saiatu naz Euskera eta aldameneko hizkuntzak “deseraikiten”, piezarik txikienak, “erroak”, “hizkiak”, “aditz” eta “amaierak” banatzen, josten, elkarren gainean ipinten, gerizpeak ikusten, soinuak entzuten... (Gramatika edo Sintaxia ez dot merezigarri aurkitu). Gero, filmeak, eleberri, olerki, abesti, hiztegi eta hizkuntzalaritzako liburuak aparte, beste hamarkada bat Zientzietako liburu, lan eta teknika barriak galdetzen: Antropologia, Botanika, Nekazaritza eta Abeltzantza, Arrantza eta (itsas)ontziak, eraikietako teknikak, Marinelen esanak, Edafologia, Arkeologia, Sedimentologia, Eguraldi eta Itsasoko Zientziak, Mineralen eta Metalen “ixil-esaleak”, eraikitze osagaien eta tresnen zehaztasunak, sokagileen eta larru apainzaleek ahaztutako sekretuak...

Beharbada, azken hamarkadan, teknika bi heldu dira gulako bakartien eskuetara (oraintsu arte unibersidadeak edo/ta ahaldunek bakarrik erabili leitekeenak), hau da “GIS” edo Geografiaren Informatika bidezko Sistema, eta Estatistikako programak, milioikadaka “toki izen” erabilteko.



Bien nahasta, zoragarritzko emoitza: Urrunengo, galduenengo, ahaztuenengo tokien xehetasun ugari.

Bakardadean ikasitako gauzak aparte, zorionekoa izan naiz, gaztetan, arrantzale zaharrekaz arrantzan joateko era eduki dodalako, nekazariakaz labaina “piketeko” eta “narre” gainean pentzerik astoaren jakinduria aztertzeke. Baita be errementari eta azkenengo arotzekin. Gaur egun hori ez da gertakizun.

Lortu dena, garbitan, hiztegi bat, mila eta bostehun Euskerazko “hitz laburrak”, bakotxa bere zentzuagaz.

Orain dala ehun eta berrogeita hamar urte, Felipe Monlauk, Espainiako ospetsuenetariko Etimologoa esan ebana: "Un diccionario radical que se remontase a la fuente primitiva

de la palabra, sería por cierto el más rico presente que a la inteligencia humana podría hacer la laboriosidad y el ingenio". Ba hori da nire ustez lortu dana.

1.500 erro, gehiegi iruditzen jako danori... Niri ezik. Monlauen hizketan, Sanskritoak, 1.700 ditu.


3. Euskaldunon joerak eta erdarazko hainbat berben etimologiak

Baina Dimako batzarrean ez dogu honen gain mintzatuko; gure egungo gaiak dira beste bi:

- Bat da, zergaitik euskaldunok, hain berba polit eta bikain sortu eta ehundez edo milaz urte erabili eta gero, gure aldemenetakoak hartzen badabez beretzat, guk berehala lagaten doguz behin betiko eta abiada guztian sortzen doguz ordezeko hitz barriak.

Jokera honek ondorio txarrak dakartza. Alde batetik, normalean, jatorrizko berba da anitz bider hobe bario. Bestetik, Jakinduriak (Zientziak) asko galtzen dau eta Jakinduria ha da hizkuntzaren agahutsik trinkoena, ez arau eta arau piloak.

- Bigarrena, Biltzar egunean ikusiko doguz erdarazko hamarkada hitz: Mosca, Araña, Caracol, Águila, Mosaico, Almuerzo, Basura, Puchero, Cigüeña... eta beste hamarkada bat, tokien deskribapenerako antzinatek erabili ziranak, Euskeratik sortuak, baina inork hartuta eta gu ahaztuta dauzkaguzenak, adibidez: Ozo, Paul, Lama, Igelezi, Jardin eta abar, ehundezka dagozala ikurrinak bezala Espainiatik zehar, erakusten argi eta garbi zergaitik ipini ziran izen horreek.



3. Ordun, Euskeraren Jatorri buruz?...

Gutxi eta asko.

Gutxi, egartsu garelako eta gura dogulako dana jakitea eta era batera onartua izatea mundu guztiko erakundeetatik eta hau "Euskeraren DNA mila eta bostehun zatikietan",

ez da hasiera baino; izotz mendiaren puntak diosku mami asko dagoala azpitik eta hainbeste jakingaien laguntza behar izango dala indusketa emangarria lortzeko; zuloa ondo zabaltzeko eta aurkitzen diren pitxiak ondo auzipetzeko.

Asko, asken 400 urteetan ez dalako hatz bat ere ez aurreratu.

Aurkitu duten Euskerazko hitz baten aipamen zaharrena, Kristo baino 600 urte arinagokoa da; Eutimenes deskripzio baten, hego Espainiako itsasoetan, dio “urchillak” (itsas belarrak), lotzen zutela ontzia. Ur – Txila, ez da hori baino “tropiezos acuáticos”. Latinek alderantziz, milaka miloi dauzka liburu, pergamino, harri eta txanponetan.

Berpizkunde kulturala, Espainian 1.500 inguruan hazi zena, ez da batere izan benetan Jakinduriaren Aitormena. Euskeraren arloan, alderantziz, atzerakada erraldoia baino. Ordu arte jakintsuen artean egiazat hartzen zan Euskera zela Erdararen ama (edo amaordea gutxienez), baina handik aurrera, Latinezko eta Grezierazko agirien “toneladakadak”, itsutu zuten Jakinduriako apaizak eta baten baten kexa ezik (Lopez Maderok, 1601, Balthasar Echave 1608, Garibay 1628, Larramendi 1745, Terreros 1786, Moguel 1790, Astarloa 1803, Humboldt 1828, Erro 1829, Monlau 1865, Hulenbeck 1895, Saussure 1945, Goitia 1970, Kapanaga 1978, Naberan 2008, Aznar 2011...), arduradunek ez dabe pausorik aurrera emon:

Konplexua, herabetasuna...?. Nire ustez txarrago hori baino: Erdipurdikotasuna, aulkia galtzearen zorabioa eta koldarkeria. Hiru bekatu honen batuketa: hobena.

Euskera eta Euskaldunen harrobia (gizaki guztien bezala), Afrika da.

Afrikatik gatozela, frogatu dabe. Onartua dago. Laster frogatuko da zelan Gibraltargo hestua noiztik zehartzen dan. Baita be, hurbil dago Espainia guztiko eta ipar Afrika eta Europa eta Asiaren ipar bizkerra zelan dago euskal erroz beterik.

Hitzen, hizkuntzaren aldetik, antzekoa da iduria; dorre altu bat eraiki da mito, ipuin eta ameskeri askoen gainean: Zeltak, Zeltiberoak, Indoeuropeoa.... Eta ez da sakondu behar zan puntuetan; hegoalde eta sartalde Europako hizkuntzetan (Portugesak, Gailegoa, Kastillanoa, Katalana, Okzitanoa, Frantsesa, Italianoa, Errumanoa, Latina eta Griegoa), Euskeraren aztarnak, ugariak eta jokokoak dira; kotoiaren froga ere, oso erraza.

Lehenengo esan (idatzi) ebana berbak oso gutxi aldatzen direla, Garibay historialaria zan, 1628 urtean... Ni beragaz nago (eta holako baten Michelena ere bai egoan, ze bere hitzetan, “hizkuntzan sartzan zaranean, aldakuntzak ez dira hainbeste” -

Oker gagoz gu, edo oker dagoz Madrilen izena adierazteko honako pausuak izan direla dinotenak: Mageriacum, Mageridum, Madritum, Maieratum, Maioritum, Maidrit, Madrit eta Madrid...? Nik Espainiako txokoetan saiatu eta 13 “Madrid” aurkitu dodaz letra guztiekaz. Beste zazpien, bat ere ez.

Euskeraren Jatorria

“zig-oña”, (hanka tolesgarria), hain polit eta nahasteziña den berba, herrialde asko kopiatu deuzkuena... Baiña gu, aldera utzi eta “amiomoko” barregarria hartu dogu alabatzat.



Euskeraren Jatorria

“ak-illa”, edo “auntz hiltzaille”... diñozkue Latineko “Aquila” tik... datorrela eta gu tamalez, ordezko izena asmatu: “arrano” (æro edo atzapar handi dun) baiña ez da hain berezia; tximioa ere “arrano” da hau bidez. Aka eta akilla, bi berba galduak.



Euskeraren Jatorria

“basaura” (Erderazko “basura”), utxi eta “zarama” sortu dogu.

